

PUNTA BEGOÑA

Galeriak

Galeriei buruzko informazioa daukatenek beren datuak eman ahalko dituzte

Punta Begoñako eta Getxoko memoria kolektiboa, Torrene Aretoan

Ekainaren 1etik 15era, Algortako Torrene Aretoan ikusgai izango da "Getxoko memoria kolektiboa" erakusketa, Punta Begoñako galeriei lotutako pertsonen testigantzek osatutakoa. Horiei esker, hurbilagoetik ezagutu dugu nolakoa zen galerietan bizitzea, zertarako erabiltzen ziren, zein asmoz eraikiarazi zituen jabeak, Horacio Echevarrietak, eta zer eragin izan duten getxotarren bizimoduan.

Galerien inguruan eratu den sare sozialaren bitartez, herritarrek lagatako dokumentuak, irudiak, grabazioak eta elkarrizketak bildu, sailkatu, katalogatu eta aztertu ahal izan dira. Horren emaitza narrazio bat izan da, Punta Begoñako historia ez ezik, Getxokoa, Bilbokoa eta Plentziakoa ere bildu duena. Kontakizun horren zati bat ere ikusi ahalko da erakusketan. Getxoko herritarrek garrantzi handia daukate erakusketan; izan ere, hainbatek EHUko ikertzaileen lanean lagundu dute: besteak beste, José Ramón Forasterrek, galerien arkitektoaren biloba; Iñigo Albizurik, Echevarrieta familiaren irakaslearen loba; eta Juan Tomás Hernanik, Horacio Echevarrietaren administrariaren iloba. Horiei esker, ikertzaileek lekuaren historia osatu dute eta, pixkanaka-pixkanaka, galerien inguruko sare sozial bat eratuko da.

Ekarpinak iradokizun-ontzi batean

Goiko testigantzak galerien balioa handitzeko egiten ari den ikus-entzunezkoen bilketaren lehenengo fasean jaso dira. Fase horretan, nagusiki, tokiaren historiari zuzenean lotutako pertsonen testigantzak bildu dira, hau da, galerien plangintzan aritu zirenenak edo horietan bizi edo lan egin zutenenak. Kasu askotan, pertsona horien ondorengoek lagundu dute.

Aurreikusitako bigarren fase bat egitea, Getxoko herritar guztiei irekita, hala nahi dutenek Punta Begoñari lotutako testigantzak, bizipenak eta bestelako materialak eman ditzaten. Fase horretako lehenengo urrartean, iradokizun-ontzi bat jarriko da Torrene Aretoan, ekainaren 1etik 15era, getxotarrek beren harremanetarako datuak eta eman dezaketen informazioa utzi ditzaten (hala nola galeriei buruzko argazkiak, postartxartelak, bideoak, gutunak, dokumentuak, istorioak, oroitzapenak eta bizipenak). Aurrerago, testigantzak biltzen jarraitzeko beste bide batzuk ezarriko dira eta horien berri emango da, Getxoko memoria kolektiboa eraikitzen jarraitze aldera.

Erakusketa Villamonten

Getxoko historia kolektiboaren ildotik, Villamonteko Kultur Etxeak ere erakusketa bat hartuko du ekainaren 1etik 15era, zeinak herritarrei hurbilduko dizkien Punta Bego-



ñan 2017. urterako aurreikusitako esku-hartzeak. Hain zuzen ere, erakusketan birsortzeen eta planoen bidez azalduko da, esate baterako, obrak zertan dautzan, eraikinen zein gunetan esku hartuko den eta zein teknika

erabiliko diren. Egingo diren lan horiei esker, eraikinen irisgarritasuna hobetuko da eta, horrela, galerietako eremuak gehiago erabili ahal izango dira eta eraikinen elementuen narriadura geldiaraziko da. Besteak beste, honako esku-hartze hauek aurreikusitako dira: aretoa iragazgaitzea, hegoaldeko galerian bi sabai aizunak eskoratztea, aretoaren azpiko gunen berrirako sarbidea sortzea, iparraldeko sarreraren igogailu panoramiko bat jartzea eta beste sarrera bat eratzea hegoaldeko galerian.

Galerien gaia hilabete honetan

2017ko bisita gidatuen formatu berriekin jarraituz, ekainean gai berri bati helduko diogu. Hain zuzen ere, azalduko dugu galeriak eraikitzeko erabili ziren materialek zein kalte daukaten gaur egun, eta zergatik izan ziren deigarriak eta berriak bere garaian. Beraz, ikusiko dugu denborak zer eragin izan duen horietako bakoitzean, baita nola eragin duten ere tokiko eta inguruko baldintzek elementuen narriadura horretan, kalteak aztertzeke erabiltzen diren teknikekin batera.



Galeriak, Getxotik at ere

Punta Begoñako galeriak Zientziatekaren gai nagusia izan dira, hau da, UPV / EHUko Kultura Zientzifikoko Katedrak eta Azkuna Zentroak (Bilbo) gaurkotasunezko zientzia-gaiak zabaltzeko hilaletan antolatzen duten hitzaldi-zikloarena. "Bitxi arkitektoniko baten berreskurapena: Punta Begoñako Galeriak" izeneko hitzaldian, proiektuko ikertzaileek banan-banan aipatu zituzten iragan maiatzaren 24an, asteazkena, egunero aurrean izaten dituzten errotrak, eta ikerketa-lanaren lehen faseko aurkikuntza nagusien berri eman zuten.

Galerietan beti gertatzen da zerbait



Estazio meteorologiko berria

UPV / EHU unibertsitateko ikertzaileek estazio meteorologiko bat jarri berri dute Punta Begoñaren goiko lorategian, galerietan egiten ari diren jarraipen hidrogeologikoa osatzeko asmoz. Estazio horrek hainbat elementu neurtzen ditu: adibidez, haizearen norabidea eta intentsitatea, inguruneko hezetasuna eta presio atmosferikoa. Horrez gain, euri-urra biltzen du, berorren konposizio kimikoaren jarraipena egiteko. la denbora gutzian biltzen ditu datuak, eta EHUko ikerlariek aldizka erregistratzen dituzte. Informazio hidrometeorologikoari esker, ingurunearen oinarritako alderdiak ezagutu dira, eta aztertu ahalko da zer eragin duten ezaugarri horiek eraikinen materialen aldatketa- eta narriadura-prozesuetan.



Azterketa zundaketak

Proiektuaren helburuetako bat eraikinen egituraren egoera ezagutztea da. Horretarako, hainbat zundaketa egin dira; hau da, zulo bat egin da lurra, eraikinen eta amildegiaren harriaren arteko euskarria zein egoeratan dagoen aztertze aldera. Punta Begoñako azken zundaketak eskuz egin dira, kalte gutxiago eragiten dituztelako eta lurra gutxi-gutxi ateratzea ahalbidetzen dutelako; horrenbestez, eragin txikiagoa dute ingurunean.

Galeria biziak



Bisita gidatuak

Galerietan, bisita gidatuak egiten hasi dira berriz ere apirillean, eta aurtun eduki berriak zabaltzen ari dira hilaletan. Lehenengo asteetan, nagusiki, getxotarrak, bilbotarrak eta beste bizkaitar batzuk hurbildu dira; baina, pixkanaka-pixkanaka, galeriak oihartzuna sortzen hasi dira eremu horietatik harago. Izan ere, beste jatorri batzuetako bisitariak jaso dituzte, besteak beste, Valentzia, Valladolid, Logroño, Madril,artzelona, Sevilla, Burgos, Ourense eta Coruñaok. Beste herralde batzuetatik ere etorri izan dira galeriak ezagutzera, esate baterako, Alemaniatik, Estatu Batuetatik, Poloniatik eta Italiatik.



EHUko ikasleak galerietan ikasten

Prestakuntza da galerien balioa nabarmentzeko proiektuaren ardatz nagusietako bat. Izan ere ikasketarako agertoki ezin hobea dira, eta EHUko zenbait gradu eta master irakasteko erabili ohi dira. Esate baterako, Paisaiaren kudeaketa. Ondarea, Lurraldea eta Hiria izeneko graduondoren 2. lauhilekoko eskola bat galerietan eman da. Bertan, hogeita hamar bat ikasleri erakutsi zaie nola berritatu daitekeen nortasun-sentimenduak sortzen dituen ondare-elementu bat lurralde-estrategietan, hain zuzen, berrikuntzaren, kulturaren eta jardueren sozioekonomikoen balioa handiagotzeko.